

Gorka Sanchez: Europako Txapelkun azpi-16 mailan



Pasa den hilean Alemanian jokatu zen 16 urte beherako Europako Futbol Selekzioen Txapelketan ermuar bat izan zen Espainiako selekzioko partaide. Finalean, penalti jaurtiketei esker garaipena lortu zuten. 16 urte egin berriak eta dagoeneko bi urte daramatza Athletic-eko kadete mailan jokatzeko. Hurrengo erronka nagusia Egipto-n izango den Munduko Txapelketa irabaztea izango du, nahiz eta gauzak astiro egitearen alde den.

DROGETENITTURRI- ATHLETIC-ERA NOLA IRITSI ZARA?

Gorka Sanchez- Tira, San Antonio taldean hasi nintzen infantil mailan. Ondoren, Ermuaren kadete mailan nenbilela, Athletic-era joateko aukera iritsi zitzaidan. Froga batzuk gairatu eta hala hasi nintzen Lezaman.

D.- ZEU ZARA ATHLETIC-EKO GAZTE TALDEETAN HASTEN DEN AURRENEKO ERMUARRA...

G.S.- Ez, beste urte batzuetan ere izan dira Athletic-eko gazte taldeetan aritu izan diren ermuarrak. Nire taldean, Eibar, Durango eta Zornotzako mutilak ere badaude. Badut maila goragoko taldeetara iris-

teko itxaropena; hori bai, lana gogotik egin beharko dut.

D.- EUROPAKO TXAPELDUN AZPI-16 MAILAN. ZER NOLAKO ESPERIENTZIA IZAN DA?

G.S.- Oso polita. Bizkaiko eta Euskadiko selekzioetan jokatu ostean, Espainiako selekzioan parte hartzeko hautatu ninduten. Madrilen kontentrazioa egin eta Alemaniako Eurokopa irabazi genuen.

D.- ZENBAT ALDIZ JOKATU DUZU ESPAINIAKO SELEKZIOAREKIN?

G.S.- Lau aldiz.

D.- ZEIN POSTUTAN JOKATZEN DUZU?

G.S.- Aurrelari jokatzeko dut.

Denboraldi honetan 57 gol egin ditut.

D.- GUSTOKOEN DUZUN FUTBOLARIA?

G.S.- Bittor Alkiza.

D.- BOSSMAN LEGEAK HARROBIARI MIN HANDIA EGINGO OMEN DIO...

G.S.- Athletic-en kasuan, harrobiko lana bultzatzen denez, lege honek zaildu egiten du ni bezalako jokariak aurrera egitea.

D.- LUIS FERNANDEZ BEREZIA OMEN DA...

G.S.- Aurrez-aurre ezagutzeko aukera izan dut, eta nire ustez benetan gizon jatorra da. Oso gustoko dut.

Testua- Asier Ibaibarriaga
Argazkia- Santos Vega

Sabin Urkizu Harategia Diputazioa 3, behea - Ermua

KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN BERTOKO ABELGORRI OKELA SALTZEKO BAIMENDUA

CARNICERIA
SABIN URKIZU

BAIMENDUTAKO HARATEGIA
KALITATEAREN EUSKO LABELA
duen hemengo Abeltzari-Okelaren
saltzeratzailea

Hemendik aurrera, gure harategian
Kalitateko Eusko Labela duen
Abeltzari-Okela aurkituko duzu.

TXINDURRI TALDEA

Tokian tokiko